

Euskal AEko ingurumen-zergak 1.256 milioi eurokoak izan ziren 2018an, aurreko urtean baino % 4,5 gehiago

Energiaren gaineko zergak dira garrantzitsuenak, kopuru osoaren % 86, eta gehien hazi direnak, % 4,7

Euskal AEko ingurumen-zergen zenbatekoa 1.256 milioi eurokoa izan zen 2018an, aurreko urtean baino % 4,5 gehiago, eta Euskal AEko zerga guztien % 7,6 izan ziren, Eustatek egindako Ingurumen-zergen Kontuaren arabera.

Ingurumen-zergak horrela definitzen ditu EUROSTATEk: horiek zeinen zerga-oinarria unitate fisiko edo antzekoren bat baita materialen batena zeinek ingurumenean inpaktu kaltegarri, zehaztu eta espezifikoak baitu; SEC2010-Europar Kontu Sisteman zerga gisa identifikatuak behar dira izan.

Ingurumen zergak ingurumen izaeraren arabera (milaka euro eta %). 2015-2018 (a)

	2015	2016	2017	2018 (a)	2017/2016	2018(a)/2017
GUZTIRA	1.112.529	1.145.635	1.201.973	1.255.640	4,9	4,5
Energia-zergak	955.663	987.302	1.034.555	1.082.712	4,8	4,7
Garraio-zergak	146.820	148.787	156.948	162.555	5,5	3,6
Kutsadura- eta baliabide-zergak	10.046	9.545	10.470	10.374	9,7	-0,9

(a) aurrerapena

Iturria: Eustat. Ingurumenaren kontuak. Ingurumen zergen kontua

Ingurumen-zergak hiru kategoriatan sailkatzen dira: Energia-zergak, Garraio-zergak, Kutsadura- eta baliabide-zergak.

Taldekatze horri kasu eginez, **energiaren gaineko zergak** dira munta handienekoak eta 2018an 1.083 milioi eurokoak izan ziren, guztiaren % 86,2. Talde horren barruan, hidrokarburoen gaineko zerga berezia da garrantzitsuenak: 922 milioirekin, % 85,2 da, eta % 3,4ko igoera izan du 2017arekin alderatuta. Energiaren gaineko zergak, guztira, % 4,7 igo ziren 2017arekin alderatuta.


Bigarren tokian garrantziari begira daude **garraio-zergak**, guztiaren % 13,0, 2018an 163 milioi euro, % 3,6 gehiago aurreko urtean baino. Nabarmentzen da kategoria horretan trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga, 136 milioi euro 2018an, % 83,7 zerga-talde horretan.

Azkenik, **kutsadura- eta baliabide-zergak**, gainerako % 0,8ak dira, eta urte arteko aldakortasun handiagoa dute; 2018an % 0,9 murriztu ziren aurreko urtearen aldean, 10 milioi eurotan mantenduz.

BPGri dagokionez, 2018an ingurumen-zergak % 1,63 izan ziren, Espainiarako kalkulaturako % 1,84ren eta 28-Europar Batasuneko % 2,40ren azpitik.

Euskal AEko zerga guztiei dagokienez, 2018ko ingurumen-zergak kontabilitate nazionalaren esparruan kontabilizatutako zerga guztien % 7,6 izan ziren. Zerga-motaren arabera, ingurumen-zerga gehien hementxe daude: *Produktuei buruzko zergetan, BEZ eta inportazioei buruzkoak aparte*. % 52,4 dira, 1.079 milioi eurora iritsita.

Zergen banaketa Euskal AEn (%). 2018 (aurrerapena)



Iturria: Eustat. Ingurumenaren kontuak. Ingurumen zergen kontua

Bestelako zerga arrunten epigrafean, ingurumen-zergak guztizkoaren % 37,8 izan ziren, hau da, 137 milioi euro 2018an, eta *Produktzioaren gaineko beste zerga batzuen* barruan, 41 milioi euro ingurumen-zergei dagozkie, hau da, % 6,0.

Diru-sarrera fiskal guztiak kontuan hartzen baditugu (zergak eta gizarte-kotizazioak), Euskal AEko ingurumen-zergak % 4,9 dira 2018an; beraz, 28-Europar Batasuneko batezbestekoaren (% 6,0) eta Espainiakoaren azpitik dago (% 5,2) eta Frantzia (% 4,9), Suedia (% 4,7) edo Alemania (% 4,3) bezalako herrialdeen mailan, Eurostatek 2018rako argitaratutako azken datuen arabera.

2018rako ingurumen-zergen banaketa lurraldearen arabera aztertuz gero, Bizkaiak horien % 53,4 metatzen ditu, Gipuzkoak % 31,4 eta Arabak gainerako % 15,3ak.

Euskal AEko ingurumen zergak lurraldeka (milaka euro eta %). 2015-2018 (a)

	2015	2016	2017	2018 (a)	2016/2015	2017/2016	2018(a)/2017
EUSKAL AE	1.112.529	1.145.635	1.201.973	1.255.640	3,0	4,9	4,5
ARABA/ÁLAVA	175.324	173.376	188.774	191.884	-1,1	8,9	1,6
BIZKAIA	566.072	593.078	617.942	669.986	4,8	4,2	8,4
GIPUZKOA	371.133	379.181	395.257	393.770	2,2	4,2	-0,4

(a) aurrerapena

Iturria: Eustat. Ingurumenaren kontuak. Ingurumen zergen kontua

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62